

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Zergadunaren 2026ko egutegiaren aldaketa partziala, 2025eko azaroaren 17an onetsia

Alkatearen 2026ko maiatzaren 28ko 225 ebazpen bidez, erabaki hau hartu da:

Aztertu da udal honek izapidetutako espedienteak, zergadunaren 2026ko ekitaldiko egutegia onesteari buruzkoa, eta udal zerga bilketa kudeatzeko programa berria ezartzeko eta migratzeko prozesutik eratorritako gorabehera teknikoak hauteman dira, zerga errolda jakin batzuk behar bezala kudeatzeari eta jaulkitzeari eragiten diotenak, hasieran aurreikusitako epeen barruan. Hori dela eta, beharrezkoa da aipatutako zerga egutegia partzialki aldatzea, zerbitzu publikoa behar bezala ematen dela bermatzeko eta herritar zergadunei kalterik ez egiteko.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Udalbatzak, 2025eko azaroaren 17an egindako bilkuran, zergadunaren 2026ko ekitaldiko egutegia onartu zuen, errolda bidez aldizka kobratzen diren udal tributuak eta tasak borondatez kobratzeko aldiak barne, eta iragarkia argitaratu zuen 2025eko abenduaren 10eko ALHAOn (140. zk.).

Bigarrena.– Osoko bilkuraren erabaki horren hirugarren apartatuan, berariaz gorde zitzaion alkate-udalburuari onetsitako egutegia aldatzeko ahalmena, baldin eta arrazoi teknikoak direla-eta, behar bezala justifikatuta, ezinezkoa bada baliabide ekonomikoak adierazitako egunetan kudeatzea.

Hirugarrena.– Udala, gaur egun, udal diru bilketaren kudeaketa programa berria ezartzeko eta migratzeko prozesuan dago, eta 2026ko zerga errolda jakin batzuk behar bezala egiteari, baliozkotzeari eta jaulkitzeari eragiten dioten gorabehera tekniko eta operatiboak hauteman dira.

Laugarrena.– Inguruabar tekniko horiek direla eta, ezin da bermatu, hasieran aurreikusitako egunetan, diru bilketaren kudeaketa egokia egingo denik eta hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zergari (kuotaren ehuneko 50eko ordainketa zatikatuaren lehen epea), landa ondasun higiezin gaineko zergari eta zabor bilketaren tasari dagozkien ordainagiriak herritarren eskura behar bezala jarriko direnik.

Bosgarrena.– Administrazio onaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak babesteko eta zergadunekin zerikusirik ez duten gorabehera teknikoen ondorioz zergadunei kalterik ez egiteko, beharrezkotzat jotzen da, salbuespen gisa, hasieran zerga kontzeptu horietarako onartutako ordainketaren borondatezko epea luzatzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearren 21.1.f) artikulua eta horrekin bat datozen gainerako arauak, alkatetzak onartutako aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa garatzeko dituen eskumenei buruzkoak.

Bigarrena. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 61.3 artikulua, ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren tributuak borondatezko epean ordaintzeko epeei buruzkoa.

Hirugarrena. Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Araudi Orokorra onesten duen maiatzaren 10eko Diputatuen Kontseiluaren 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirubilketa Araudi Orokorren 119. artikulua, kobrantza iragarkiei buruzkoa.

Laugarrena. 2025eko azaroaren 17ko osoko bilkuraren erabakia, zergadunaren 2026ko ekitaldirako egutegia onartzen duena, eta alkatetzari berariaz gordetzen diona aldatzeko ahalmena, behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoengatik.

Emandako eskumenak baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA. Zergadunaren 2026ko ekitaldiko egutegia partzialki aldatzea, soilik honako tributu eta tasa hauei dagokienez:

1. Hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gainera zerga (kuotaren ehuneko 50eko ordainketa zatikatuaren lehen epea):

– Borondatezko aldia:

Hau dioen lekuan:

2026/05/01–2026/06/30

Hau esan behar du:

2026/05/01–2026/07/31

– Helbideratutako ordainagirien kobraketa data:

Hau dioen lekuan:

“ekainaren hasieran”

Hau esan behar du:

“uztailaren hasieran”

2. Landa ondasun higiezin gainera zerga.

– Borondatezko aldia:

Hau dioen lekuan:

2026/05/01–2026/06/30

Hau esan behar du:

2026/05/01–2026/07/31

– Helbideratutako ordainagirien kobraketa data.

Hau dioen lekuan:

“ekainaren hasieran”

Hau esan behar du:

“uztailaren hasieran”

3. Zabor bilketaren tasa:

– Borondatezko aldia:

Hau dioen lekuan:

2026/05/01–2026/06/30

Hau esan behar du:

2026/05/01–2026/07/31

– Helbideratutako ordainagirien kobraketa data:

Hau dioen lekuan:

“ekainaren hasieran”

Hau esan behar du:

“uztailaren hasieran”

BIGARRENA. Aldatu gabe mantentzea 2025eko azaroaren 17ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartutako zergadunaren egutegiaren gainerako edukia.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn, iragarki taulan eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratzeko agintzea, denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

LAUGARRENA. Udalbatzari ebazpen hau jakinaraztea egiten duen hurrengo bilkuran.

Ondategi, 2026ko maiatzaren 28a

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA